



LANDA GARAPENAREN LEGEAREN LABURPENA

Landa Garapenaren Legearen proiektuaren asmoa da indarrean dagoen apirilaren 8ko Landa Garapenaren 10/1998 Legea ordezte; izan ere, lege hori aplikatu zenetik igaro diren hogeitau urte baino gehiagoan **eraldaketa** garrantzitsuak eta joera berriak bateratu dira, eta horrek bete-betean eragin die landa inguruneari eta landa ingurunearen eta hiri ingurunearen arteko interakzioari.

Izaera ekonomikoko eta ikuspegi politikoko eraldaketek, bai eta egungo legeak jorratu arren nahi bezala funtzionatu ez duten gai batzuk hobetzeko edo gainditzeko beharrak ere, legea eguneratzea gomendatzen dute, landa garapenerako estrategia berri bat bultzatzeko.

Landa garapeneko estrategia berri bat, honako alderdi hauek jasoko dituena:

- i. landatartasunaren kontzeptua integratzen duen eta **lurralde garapeneko** ikusmolderantz aurrera egiten duen ikuspegia, EBk bultzatzen duen Lurralde Kohesioko Politikaren ildotik,
- ii. lurraldeari eragiten dioten **politika publikoen koordinazio, integrazio eta elkarreragin handiagoa,**
- iii. nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basogintzaren sektoreetako **jarduera ekonomikoen** sustapen jarraitua eta espezifikoa, landa eremuei atxikitako jarduerak eta eremu horien berezko jarduerak diren aldetik.
- iv. landa inguruneari zeharka eragingo dion eta paradigma berri horietara egokituko den **governantza aurreratu berri** baten ezarpena.



- v. **indarrean dauden tresnak** garatzea edo aldatzea (finantzarioak, antolaketakoak, plangintzakoak, zonakatzekoak eta arautzekoak), eta estrategia berri horretarako **tresna berriak** sortzea, horietako bat izanik indarrean dagoen landa garapenaren legea gainditzea, eta helburu estrategikoak, helburu orokorrak eta sektorialak berriz definitzea.

Euskal landa ingurunea herrialdearen ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen garapenean eta kohesioan funtsezko faktore gisa posizionatzera bideratuta dago estrategia hori, eta bere **helburua** da euskal landa ingurunearen garapen iraunkorrerako jarduerak gidatuko dituen arau esparrua erregulatzea eta ezartzea, landa ingurunea herrialde osoaren ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen garapenerako eta kohesiorako funtsezko faktore izan dadin, lurraldearen gainerako eremuaren **baldintza berdinetan**.

Egungo Landa Garapeneko Programaren (2012) datuen arabera, Euskadi osoak 2.128.397 **biztanle** ditu eta soilik horien %8,3 bizi da 150 bizt./km² baino gutxiagoko biztanleria dentsitatea duten udalerrietan, ELGak landa eremutzat jotako udalerrietan, alegia. Halere, gure landa eremua oso berezia da, hiri eremuarekin sendo uztartuta baitago nahiz ete hiri eremutik argi eta garbi bereizi daitekeen, eta hori dela-eta zaila da udalerriri lotutako aldagai estatistiko jakin batzuekin parekatzea. Horregatik, gaur egun EAEko edozein landa eremuri ematen zaio arreta programan, eta haren aplikazio eremutik kanpo geratzen dira soilik biztanlegune kontzentratuetako hiri eremuak.

Legearen helburua da landa eremuak berrikuntzaren, IKTen, modernitatearen, ekintzailatzaren eta iraunkortasunaren trenarekin bat egitea, eta, horrela, **herrialdearen ikuspegi integratuago** bat lortzea. Hori guztia, alde batera utzi gabe nekazaritza jarduerak Euskadiko lurraldearen eta ingurumenaren kudeaketan duen eginkizun estrategikoa, bai eta ekonomian eta elikagaien hornitzaile gisa duen eginkizuna ere.

Lege berria **4 kapitulutan** egituratuta dago.

I. **Kapituluak** legearen xedapen orokorrak garatzen ditu, eta, bereziki, legearen xedea eta printzipioak eta lortu nahi diren helburuak.

Aipatutako xedeaz gain, nabarmentzekoa da **II. Kapituluak** euskal landa eremuaren zonakatze berri bat aurreikusten duela, bai eta tokiko proiektuak eta ekimenak bultzatu beharreko erakunde politikekin bateratzeko aurreikusitako plangintza tresna nagusiak ere.

III. Kapitulan, sustatu beharreko jardueren **governantza** lantzen da, bereizitako bi kategoria aurreikusiz: ikuspegi instituzionaleko governantza eta ikuspegi publiko-pribatukoa.

Governantza instituzionala da Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek beren eskumenen esparruan egindako jarduera estrategikoei buruzkoa. Maila horretan, legeak zaintzaren edo landa lentearen ikuspegia azpimarratu nahi du, politika instituzional eta sektorialen zaintzari lotuta, landa garapeneko politiketan aurreikusitako helburu eta jardueretara egokitzeari dagokionez.

Landa ingurunearen beharrek ikuspegi egokituak behar dituzte, eta, horregatik, funtsezkotzat jotzen da erakundeek bat egitea landa ingurunean eragina duten programak eta politikak diseinatzerakoan, landa ingurunearen garapen iraunkorra bultzatzeko irtenbide egokiak bilatzen saiatzeko.

Hori dela eta, legeak xedatzen duenez, EAEko Administrazio Orokorrak edo foru administrazioek sustatu eta lege honetan aurreikusitako landa eremuei dagozkien helburu orokorrak edo sektorialak ukitzen dituzten plan, programa eta ekimen instituzional guztiek erakunde sustatzailearen landa garapenaren arloan eskumena duen sailaren txostena beharko dute, onartuak izan aurretik.

Tokiko ikuspegiko governantzari dagokionez, arau berriak egungo eredia hobetzea proposatzen du, lankidetzaren publiko-pribatuko formula baten bidez, bereziki LGEen, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien arteko harremanetan, LGEek lege honen helburuak betetzen modu eraginkorragoan lagundu dezatela ahalbidetzeko.

Azkenik, **IV. Kapituluak** landa garapeneko jarduketak finantzatzeko zenbait arau eta printzipio ezartzen ditu.

Euskadi aitzindaria izan zen estatu mailan, bai eta European ere, Landa Garapenerako Politika bat abian jartzen, honako kontzeptu hauek barne hartuta: landa ingurunearen funtzio aniztasuna; LEADER ikuspegiaren

aplikazioa; eta politika hori diseinatzeko lankidetzak publiko-pribatuaren erabilera, landa garapenerako Eskualde Programak ezarriz eta programa horien diseinuan eremu horietako biztanleen partaidetza edukiz, lurralde bakoitzeko erronketan oinarrituta eta lurralde bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak kontuan hartuta, toki mailan konponbideak bilatzen saiatzeko. Horretarako, eragile ekonomiko eta sozial askoren laguntza izan dugu, horietako asko landa garapenerako elkarteetako bazkideak.

Kontuan hartuta azken hogeitun urteotan gertatu diren aldaketak eta Europako egungo esparru politikoa, non NPBren azken erreforma ixten ari baita, Landa Garapenerako bigarren zutabea barruan sartuta, eta landa eremuetarako epe luzeko ikuspegiari buruzko estrategia baten inguruan Batzordeak egindako lana ere kontuan hartuta, une egokia da Landa Garapenerako Lege berri bat abian jartzeko, gure eremuen garapen iraunkorrari lagunduko dioten mekanismo eta tresna berriak abian jarri ahal izateko.

Gure landa eremuek lurralde garapen adimenduneko metodologietan oinarrituta lan egin dezaten lagundu nahi dugu, **Smart Villagesen** ildotik, haien potentzialak ahalik eta gehien aprobetxatuz, eta eragileen arteko lankidetzak eta sareko lana sustatuz. Hortik dator, halaber, Euskadin **Landa Garapenerako Sarea** sortzeko Legearen proposamena, sarearen helburua izanik landa garapenera inplikaturako erakunde eta eragileen arteko lotura, koordinazioa eta lankidetzak bultzatzea.

Lan metodologia berri horiei lotutako **erronka berriek**, bai eta berrikuntzak, banda zabalak gure landa eremuetan egun duen hedapenak eta IKTen bidez ezar daitezkeen zerbitzuek ematen dituzten aukerak, erronka demografikoak, landa ingurunean ekintzaitzarako bultzatuz gazteak landa ingurunera erakartzeko apustuak -ez bakarrik lehen sektorea proiektu eraldatzaileak sustatzeko eta nekazaritza ekologikoa bultzatzeko, baita sektore berriei, hala nola bioekonomiari, lotutako beste enpresa mota batzuk sortzeko ere- eta Itun Berdean eta “Baserritik mahaira” estrategian proposaturako helburuak betetzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak saihesteko egin beharreko ahaleginak **beharrezkoak egiten dituzte lege berriak aldarrikatzen dituen tresna berriak eta gobernantza.**



Sarreran esaten nuen bezala, lege berriaren helburua da gure landa eremuen garapen iraunkorra lagungarri izatea **Euskadi osoaren garapenerako**, lurralde garapen integratuaren ikuspegitik, politikak eta programak beren berezitasunetara egokituz, eremu horiek bizitzeko eta proiektuak hasteko leku erakargarriak izan daitezen, kohesioaren eta aukera berdintasunaren ikuspegitik.